

## XEDAPEN OROKORRAK

### ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 5523

*463/2013 DEKRETUA, abenduaren 17koa, Profesionaltasun-ziurtagirien eta Egiaptapen Partzial Metagarrien Euskal Erregistroa sortu eta ziurtagiri eta egiaptapen horiek erregistratzeko eta emateko prozedura ezartzen duena.*

Kualifikazio eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak 8. artikuluko 1. paragrafoan ezartzen duenez, lanbide-heziketako tituluek eta profesionaltasun-ziurtagiriek egiaztatu egiten dituzte horiek eskuratu dituztenen lanbide-kualifikazioak, izaera ofiziala dute, Espainia osoan dira baliagarri, eta administrazio eskudunei dagokie ziurtagiri eta titulu horiek ematea.

Bestalde, Enplegurako Lanbide Heziketaren Azpisisistema arautzen duen martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretuak 2.2.e) artikuluan ezartzen duenez, enplegurako lanbide heziketaren helburuetako bat da sustatzea langileek eskuratutako lanbide-gaitasunak egiaztatzea, bai prestakuntza-prozesu formal edo ez-formalen bidez eskuratutako gaitasunak, bai lan-esperientziaren bidez eskuratutakoak.

Halaber, errege dekretu horren 11. artikuluko 4. paragrafoan adierazten denez, profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaptapen partzial metagarriak bilduko dituen erregistro bat eratu beharko dute autonomia-erkidegoek, izenak eta espezialitateak jasoko dituen.

Bestalde, Profesionaltasun Ziurtagiriak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuak –martxoaren 15eko 189/2013 Errege Dekretuaren bidez aldatuak– 3. artikuluko a) idatzi-zatian ezartzen duenez, profesionaltasun-ziurtagirien xedea da horietan jasotako lanbide-kualifikazioak edo gaitasun-unitateak egiaztatzea, edozein izanda ere eskuratzeko era (prestakuntza bitartez, lanbide-esperientzia bitartez edo prestakuntza bide ez-formalen bitartez, betiere Kualifikazio eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 8. artikuluen garapean ezarritakoari jarraikiz).

Errege dekretu horren 16. artikuluko 2. paragrafoan ezartzen denez, profesionaltasun-ziurtagiriari lotutako modulu guztiak gainditu ez baina haren gaitasun-unitate bati edo batzuei lotutako moduluak gainditzeko ziurtagiri bat jasoko dute, gainditutako moduluei buruzkoa, eta egiaptapen partzial metagarriaren balioa izango duena.

Horretaz gainera, urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren 17.1 artikuluan berriro ezartzen da lan arloko administrazioek izendun- eta espezialitatedun-erregistro bat eratu behar dutela eta han bildu behar dituztela emandako profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaptapen partzial metagarriak,

Bestalde, berriki indarrean sartu da Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legea, helburu duena bizi arteko euskal ikaskuntza sistema bat arautzea, hain zuzen ere herritarren etengabeko prestakuntza- eta kualifikazio-premiei erantzuteko, garapen pertsonal, sozial eta profesionala errazteko, eta, hartara, Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialaren alde egiteko. Alde horretatik, lege horrek beharrezko diren mekanismoak ezartzen ditu jardunbide egokiak programatzeko, koordinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko.

Lege horren 8. artikuluan ezartzen denez, ikaskuntza-ibilbideak eta -ekintzak garatu ahal izatea eta prestakuntzatik lan-mundura jauzi egitea errazteko, Eusko Jaurlaritzak bizialdi osoko ikaskuntza-prozesuko programek modulu bidezko egitura izatea sustatuko du, eta, horrekin batera, hezkuntza-sistema nahiz lan-mundua bizialdi osoko ikaskuntza-prozesuko euskal sistemako programa ez-formal eta informalekin lotuta egotea bultzatuko du, arau horren garapenaren bitartez bultzatu ere.

Adierazitako guztia oinarri hartuta, hezkuntzaren eta enplegurako prestakuntzaren arloko eskumenak dituzten sailek lan-esperientziaren bidez nahiz ikaskuntza-prozesu ez-formaletan eta informaletan egindako ikaskuntzak aitor daitezela sustatuko dute, aitortza horren bidez lanbide-heziketako tituluak eta egiaztagiria eskuratu ahal izateko eta, beharrezkoa balitz, unibertsitatez kanpoko ikasketetan, unibertsitatekoetan eta lanbide-heziketakoetan hasi ahal izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, azaroaren 9ko 289/2010 Dekretuaren bitartez, Transferentzien Batzorde Mistoaren 2010eko urriaren 28ko Akordioa onartu zen. Akordio horren arabera, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak burutzen zituen lan-arloko legeria betearazteko eginkizun eta zerbitzuak, azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuak ezarritako baldintzetan.

Dekretu horren eranskinaren B) idatzi-zatian –Euskal Autonomia Erkidegoak Estatutik eskuratu dituen eginkizun eta zerbitzuei buruzkoan– ezarritakoarekin bat etorritik, erkidego horri eskualdatu zitzaizkion Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan burutzen zituen lan-arloko legeria betearazteko eginkizunak.

Alde horretatik, eta enplegurako lanbide heziketaren arloko eginkizunei dagokienez, besteak beste honako hauek eskualdatu ziren: batetik, profesionaltasun-ziurtagiriak eta lanbide-kualifikazioen gaitasun-unitateen egiaztapenak (egiaztapen partzial metagarriak) profesionaltasun-ziurtagirien bidez emateko eginkizuna, eta, bestetik, ziurtagiri horien erregistroa kudeatzeko eginkizuna Enplegu Sistema Nazionalerako erregistroarekin lankidetzan.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren egitekoa da eskumen horiek betetzea. Izan ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legeak 3. artikuluan ezartzen duenez, erakunde horren egitekoak dira, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen diren enpleguaren, enplegurako prestakuntzaren eta lan-munduratzearen arloetan politika publikoak antolatzea eta planifikatzea orokorrean, sektoreka eta lurraldeka, eta, horrekin batera, enplegua, enplegurako prestakuntza eta autoenplegua eta enpresen sorrera sustatzeko programak kudeatzea.

3/2011 Legea garatzeko, maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretua eman zen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak onartzen dituenak. Dekretu horren 15. artikuluan ezartzen denez, erakunde horren Enplegurako Prestakuntza eta Diru Sarrerak Bermatzeko Zuzendaritzaren eginkizunak dira egin beharreko jarduerak egitea profesionaltasun-ziurtagiriak emateko eta erregistratzeko, betiere koordinatuta hezkuntza-administrazioak eskakizun profesionalen eta lanbide-gaitasunak ziurtatzearen arloan garatzen dituen ekimenekin.

Hortaz, eta esandako guztiaren ondorio gisa, arau honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan Profesionaltasun Ziurtagirien eta Egiaztapen Partzial Metagarrien Euskal Erregistroa sortzea, eta ziurtagiriak nahiz egiaztapenak emateko eta inskribatzeko prozedura arautzea.

Enplegurako prestakuntzaren arloan eskumena duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendaritzari atxikiko zaio erregistroa. Izan ere, zuzendaritzari horren egitekoak dira enplegurako

prestakuntzaren arloko espedienteak kudeatzea eta profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztapen partzial metagarriak emateko eta erregistratzeko jarduerak garatzea.

Erregistro horretan inskribatuta geratuko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztapen partzial metagarriak, eta han artxibatu eta gordeko dira, halaber, Erregistroko inskripzioak egiteko aurkeztutako agiriak. Gainera, erregistro horren edukiaren berri jakinarazi beharko zaio Enplegu Sistema Nazionalaren Erregistroari.

Arau honetan zehazten da, halaber, nortzuek eskatu dezaketen profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztapen partzial metagarriak inskribatzeko eta emateko, betiere urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoan enplegurako prestakuntzaren arloko eskumena duen zuzendaritzak izapidetuko ditu profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztapen partzialak inskribatzeko eta, horren ondorioz, emateko prozedura; eta prozedura hori ebaztea, berriz, erakunde horren zuzendariaren eskumena izango da. Ondoren, enplegu-politikaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren saileko sailburua arduratuko da profesionaltasun-ziurtagiriak benetan emateaz; egiaztapen partzial metagarriak ematea, berriz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ardura izango da.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko abenduaren 17an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea da, batetik, Profesionaltasun Ziurtagirien eta Egiaztapen Partzial Metagarrien Euskal Erregistroa sortzea, eta, bestetik, ziurtagiri eta egiaztapen horiek inskribatzeko eta emateko prozedura arautzea.

##### 2. artikulua.– Izaera juridikoa eta atxikitzea.

1.– Profesionaltasun Ziurtagirien eta Egiaztapen Partzial Metagarrien Euskal Erregistroak izaera administratiboa dauka, publikoa da, eta Euskal Autonomia Erkidego osorako erregistro bakarra izango da.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari atxikitzen zaio erregistroa, enplegurako prestakuntzaren arloan eskumena duen zuzendaritzaren bidez, eta zuzendaritza horren ardura izango dira erregistroa antolatzea, kudeatzea eta martxan jartzea.

##### 3. artikulua.– Erregistroaren edukia.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako profesionaltasun-ziurtagiri eta egiaztapen partzial metagarri guztien datuak biltzen dituzten inskripzioek osatzen dute Profesionaltasun Ziurtagirien eta Egiaztapen Partzial Metagarrien Euskal Erregistroa.

2.– Erregistroaren egitura eta antolamendua Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez ezarriko dira, eta, edonola ere, urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren III. eranskinean xedatutakoari lotuta egongo dira (34/2008 Errege Dekretua, Profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituena).

3.– Inskribatutako profesionaltasun-ziurtagiriak dokumentu publikoak dira. Ziurtagirien gaineko inskripzioak legearen arabera egokia denean baino ezin izango dira aldatu.

#### 4. artikulua.– Eginkizunak.

Profesionaltasun Ziurtagirien eta Egiaztapen Partzial Metagarrien Euskal Erregistroaren eginkizunak hauek dira:

a) Profesionaltasun-ziurtagiriak eta gaitasun-unitateen egiaztapen partzial metagarriak inskribatzea eta horiei buruzko oharpenak egitea, betiere aurretik egiaztatuta aplikagarria den araudian ezarritako baldintzak betetzen direla.

b) Erregistroan jasotako datuei buruzko ziurtagiriak egitea, hala behar denean.

c) Beharrezko diren jarduerak egitea, koordinazioa eta lankidetzazko Errazteko Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatutako Enplegu Sistema Nazionalaren Erregistro Orokorrekin.

d) Interesdunei laguntzea Erregistroko datuak eskuratzen.

e) Inskripzioen oinarri izan diren agiriak gorde eta zaintzea, bai eta, bereziki, ebaluazio-aktak eta ebaluazioen emaitza jasotzen duten agiriak ere. Prestakuntza-moduluak ematen dituzten ikas-tetxeek Erregistroa bidali beharko dituzte ebaluazio-akta eta agiri horiek, hiru hilabeteko epean gehienez.

5. artikulua.– Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak koordinatzen duen Enplegu Sistema Nazionalako Erregistro Orokorreko harremana.

Lan-merkatuaren gardentasuna bermatu eta langileen zirkulazio librea errazte aldera, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak koordinatzen duen eta Enplegu Sistema Nazionalan dagoen Erregistro Orokorri jakinarazi beharko zaizkio Profesionaltasun Ziurtagirien eta Egiaztapen Partzial Metagarrien Euskal Erregistroan egindako inskripzioak.

6. artikulua.– Profesionaltasun-ziurtagiri bat edo egiaztapen partzial metagarri bat inskribatzeko eta emateko eskabidea egiteko baldintzak.

1.– Baldintza hauetakoren bat bete beharko dute profesionaltasun-ziurtagiri bat inskribatzeko eta emateko eskabidea egin nahi dutenek:

a) Enplegurako lanbide heziketako azpisistemaren eremuan, eskatutako profesionaltasun-ziurtagiriari dagozkion prestakuntza-modulu guztiak gai kalifikazioa lortuta gainditzea, edo, eskatutako profesionaltasun-ziurtagiriari dagozkionez, lanekoak ez diren praktiken modulu nahiz gaitasun-unitateei lotutako prestakuntza-moduluen egiaztapen partzialak metatzea.

b) Hezkuntza-sisteman egindako ikasketen bidez, ziurtagiri akademiko bat eskuratzea, non egiaztatzen den gainditu egin direla eskatutako profesionaltasun-ziurtagiriaren gaitasun-unitateei lotutako lanbide-modulu guztiak; nolana ere, dagoeneko ziurtagiri baten gaitasun-unitate guztiak biltzen dituen titulu bat dutenei ez zaie profesionaltasun-ziurtagiririk emango.

c) Lan-esperientziaren edo prestakuntza-bide ez-formalen bitartez lanbide-gaitasunak eskuratzea eta, gaitasun horiek ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozesuetan, kasuan kasuko profesionaltasun-ziurtagiria osatzen duten gaitasun-unitate guztiak gainditzea, betiere Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legeko 8.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz ezarritako prozeduraren arabera.

2.– Egiaztapen partzial metagarri bat inskribatu eta emateko eskabidea egin ahal izateko, profesionaltasun-ziurtagiri batean ezarritako gaitasun-unitate bateko edo batzuetako moduluak gainditu beharko dira, nahiz eta den-denak gainditu ez.

7. artikulua.– Profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztapen partzial metagarriak inskribatzeko eta emateko prozedura.

1.– Aurreko artikuluko baldintzak betetzen dituztenek enplegurako prestakuntzaren arloko eskumena duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendaritzan eskatu dezakete profesionaltasun-ziurtagiriak eta, hala badagokio, egiaztapen partzial metagarriak inskribatzeko eta emateko.

2.– Dekretu honen I. eta II. eranskinetan jasotako eredu normalizatuen arabera aurkeztuko da eskabidea –eredu horiek eskuragarri egongo dira <https://www.euskadi.net> egoitza elektronikoa–, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan (Jose Atxotegi kalea 1, Vitoria-Gasteiz) aurkeztu ahal izango da, edo, bestela, erakunde horrek dituen lurralde-bulegoetan.

Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidea-ren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako beste edozein bidetatik ere aurkeztu ahal izango da.

3.– Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

– Gainditutako prestakuntza-moduluen diplomak.

– Hezkuntzaren arloan gainditutako moduluak baldin badira, kasuan kasuko ikastetxeak egindako ziurtagiria, zer modulu eta zer gaitasun-unitate gainditu diren zehazten duena.

– Profesionaltasun-ziurtagiri bat eskatuz gero, praktika-modulua gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiria, prestakuntza-zentroko eta enpresako tutoreek eta enpresako arduradunak izenpetuta; bestela, ziurtagiri hori aurkeztetik salbuetsita egoteko eskaera aurkeztu beharko da, Dekretu hone-tako III. eranskineko ereduari jarraikiz.

4.– Eskabideak osorik beteta ez badaude edo beharrezko dokumentazioarekin batera aurkezten ez badira, eskatzaileari eskatuko zaio akatsa konpon dezan edo beharrezko dokumentuak gainera ditzan, betiere hamar eguneko epean, eta jakinaraziko zaio hori egiten ez badu atzera botako zaiola eskabidea; hala gertatuz gero, administrazioak eskabide horri buruzko esanbidezko ebazpena eman beharko du, eta ebazpen hori jakinarazi, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

5.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegurako prestakuntzaren arloko eskumena duen zuzendaritzak egiaztatu beharko du eskatzaileak betetzen dituela profesionaltasun-ziurtagiria edo egiaztapen partzial metagarria eskuratzeko baldintzak –arauan ezarritakoak–.

Horretarako, prestakuntza-ikastetxeek edo -erakundeek zuzendaritza horri bidali beharko dizkiote ebaluazio-akta izenpetuak eta ebaluazioaren emaitza jasotzen duten dokumentuak, eta horretarako epea gehienez ere hiru hilabetekoa izango da, prestakuntza-ekintza egiaztagarriak bukatzen diren egunetik hasita.

6.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebatziko du profesionaltasun-ziurtagiriak edo egiaztapen partzial metagarriak inskribatu eta eman behar diren ala ez. Ebazpen horiek, gainera, amaiera emango diote administrazio-bideari. Ebazpen horien aurka, aukerako berraztertze errekurtso aurkeztu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako eran eta epeetan.

7.– Artikulu honetan araututako prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabidea organo eskudunaren erregistroan izapidetzera sartu den egunetik hasita. Epe hori igaro bada eta ez bada ebazpen adierazirik eman eta jakinarazi, eskaera ukatu egin dela ulertuko da.

8. artikulua.– Profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztapen partzial metagarriak egitea.

1.– Behin inskripzio-eskabidea onartuta, egin egingo dira profesionaltasun-ziurtagiriak edo, hala behar denean, egiaztapen partzial metagarriak. Enplegu-politikaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren titularrak egingo ditu profesionaltasun-ziurtagiriak; egiaztapen partzial metagarriak, berriz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak.

2.– Profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztapen partzial metagarriak egiteko, urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren II. eranskinean araututako zehaztapen teknikoak bete beharko dira.

3.– Profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztapen partzial metagarriak egiteko data bat etorriko da eskabidea organo eskudunaren erregistroan izapidetzera sartu zeneko datarekin.

9. artikulua.– Profesionaltasun-ziurtagiriak eta egiaztapen partzial metagarriak ematea.

Profesionaltasun-ziurtagiriak edo egiaztapen partzial metagarriak egin ondoren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak interesdunei jakinaraziko die nola eta noiz jaso ditzaketen. Interesdunek jaso beharko dituzte agiri horiek, aurretik euren nortasuna egiaztatuz, edo, bestela, zuzenbidearen araberak haiek ordezkatzeko dituen pertsonak.

#### LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

1.– Eusko Jaurlaritzan hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak aintzat hartuko ditu enplegurako prestakuntzaren arloan eskumena duen sailak profesionaltasun-ziurtagiri batean edo egiaztapen partzial metagarri batean egiaztatutako gaitasun-unitateak. Gaitasun-unitate horiek bakoitzari dagokion lanbide-moduluen bidez baliozkotuko dira, lanbide-heziketako titulu bakoitzari arautzen duen araudiaren arabera.

2.– Halaber, profesionaltasun-titulu eta -ziurtagirien lanbide- edo prestakuntza-moduluak baliozkotze edo salbueste aldera, hezkuntzaren eta enplegurako prestakuntzaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailek aintzat hartuko dituzte lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduretan egiaztatutako gaitasun-unitateak, lan-esperientziaren edo prestakuntza-bide ez-formal eta informalen bitartez eskuratutakoak.

#### BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Profesionaltasun-ziurtagirien eta Egiaztapen Partzial Metagarrien Erregistroko datuak bildu, erabili eta uzteko, dagokion datuen fitxategi automatizatua erabiliko da. Fitxategi hori sortzeko, bete egingo da honako lege hauetan ezarritakoa: Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoa.

#### HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Administrazio-izapideak sinpletu eta azkartze aldera, beharrezkoak diren neurriak hartuko dira dekretu honetan aurreikusitako prozedura moldatzeko, eta herritarrek bitarteko elektronikoak erabiltzeko eta datu-trukaketa errazteko, Herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legean eta Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraituz.

2013ko abenduaren 20a, ostirala

## AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak, bere eskumenez baliatuta, beharrezko diren ebazpenak eman ditzake dekretu hau aplikatu dadin.

## AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko abenduaren 17an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,  
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.



2013ko abenduaren 20a, ostirala



## I. ERANSKINA, ABENDUAREN 17KO 463/2013 DEKRETUARENA

**PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAREN ESKAERA  
SOLICITUD DE CERTIFICADO DE PROFESIONALIDAD**
**ENPLEGURAKO LANBIDE HEZIKETAREN SISTEMA INTEGRATZEKO SAILA  
ÁREA DE INTEGRACIÓN DEL SISTEMA DE FORMACIÓN PROFESIONAL PARA EL EMPLEO**

## ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DE LA SOLICITUD

LEHEN ABIZENA / PRIMER APELLIDO:	BIGARREN ABIZENA / SEGUNDO APELLIDO:	IZENA/NOMBRE:	NAN - AIZ / DNI - NIE:	
JAIOTEGUNA / FECHA NACIMIENTO:	SEXUA/SEXO:	NAZIONALITATEA/NACIONALIDAD:	GZ zk. / N.º SS	TELEFONOA/TELÉFONO:
HELBIDEA/DOMICILIO:	PK/CP:	HERRIA/LOCALIDAD:	PROBINTZIA/PROVINCIA:	ESKUALDEA/COMARCA:

## AGIRI HAU EMATEKO ESKATZEN DU:

- 
- Honako honen profesionaltasun-ziurtagiria:

.....  
Honako Errege Dekretu honetan ezarritako betekizunak betetzen dituelako:

.....  
Eta horretarako honako egiaztagiri hauek aurkezten ditu:

- 
- Honako honek emandako egiaztagiriaren fotokopia konpultsatua:

.....  
non gaitasun-unitateen osotasunari dagozkion moduluetan eskatzen duen profesionaltasun-ziurtagiriaren bilakaera positiboa islatzen den.

.....(e)n, 20 ..... (e)ko ..... (a)ren ... (e/a)n

Sinadura: .....

## SOLICITA LE SEA EXPEDIDO:

- 
- Certificado de Profesionalidad de:

.....  
Por considerar que cumple los requisitos establecidos en el Real Decreto:

.....  
Para lo que aporta la siguiente documentación acreditativa:

- 
- Fotocopia compulsada del documento acreditativo expedido por:

.....  
en el que se refleja la evaluación positiva en los módulos correspondientes al conjunto de las unidades de competencia del certificado de profesionalidad que solicita.

En ....., a ..... de ..... de 20.....

Firmado: .....

Nire ardurapean adierazten dut eskaera honetan ageri diren datuak benetakoak direla, eta Administrazioaren esku daudela horiek egiaztatzen ahal izateko.

Organo izapidegileari baimena ematen dion, eskaera honetan biltzen diren datuak egiaztatzeko behar duen informazioa Administrazio Publikoaren Komunikazio Sarearen bidez begiratu, kontsultatu edota eska dezan, ekainaren 22ko 11/2007 Legean, herritarrek Zerbitzu Publikoetan duten sarbide elektronikoa arautzen duen legean, aurreikusitakoaren arabera.

DATUAK BABESTE. Eskaera honek datu pertsonalak ditu, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren jabetzakoa den fitxategi batean jasotzen dira, eta baimena ematen diozu jabe edo titular honi modu automatizatuan erabiltzeko, eskariaren arrazotik eratorritako funtzioak soilik kudeatzeko helburuarekin, eta beharrezkoa baldin beste Administrazio Publiko batzuei lagatzeko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Lege horretan ezarritako datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, eta horretarako honako helbide honetara idatzi bat bidali beharko duzu: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua José Axtotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz.

Declaro bajo mi responsabilidad que son ciertos los datos que figuran en la presente solicitud, estando a disposición de la Administración para cualquier actuación de comprobación de los mismos.

Autorizo al órgano instructor a verificar, consultar y/o solicitar la información necesaria para la comprobación de datos que figuran en la presente solicitud a través de la Red de Comunicaciones de las Administraciones Públicas, en los términos previstos en la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos.

PROTECCIÓN DE DATOS. La presente solicitud contiene datos de carácter personal que forman parte de un fichero titularidad de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, y autoriza a dicho titular a tratarlos automatizadamente con la única finalidad de gestionar funciones derivadas del motivo de la solicitud y, en su caso cederlos a otras Administraciones Públicas en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre. Podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición previstos en la ley, dirigiendo un escrito a Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, c/ José Axtotegi 1, 01009 Vitoria-Gasteiz.



2013ko abenduaren 20a, ostirala



## II. ERANSKINA, ABENDUAREN 17KO 463/2013 DEKREUARENA

KUALIFIKAZIOEN GAITASUN UNITATEAK/EGIAZTATZEKO ESKAERA (EGIAZTAPEN PARTZIAL METAGARRIA)  
SOLICITUD DE ACREDITACIÓN DE UNIDADES DE COMPETENCIA DE LAS CUALIFICACIONES (ACREDITACIÓN PARCIAL ACUMULABLE)

ENPLEGURAKO LANBIDE HEZIKETAREN SISTEMA INTEGRATZEKO SAILA  
ÁREA DE INTEGRACIÓN DEL SISTEMA DE FORMACIÓN PROFESIONAL PARA EL EMPLEO

## ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DE LA SOLICITUD

LEHEN ABIZENA / PRIMER APELLIDO:	BIGARRREN ABIZENA / SEGUNDO APELLIDO:	IZENA/NOMBRE:	NAN - AIZ / DNI - NIE:	
JAIOTEGUNA / FECHA NACIMIENTO:	SEXUA/SEXO:	NAZIONALITATEA/NACIONALIDAD:	GZ zk. / N.º SS	TELEFONOA/TELÉFONO:
HELBIDEA/DOMICILIO:	PK/CP:	HERRIA/LOCALIDAD:	PROBINTZIA/PROVINCIA:	ESKUALDEA/COMARCA:

## AGIRI HAU EMATEKO ESKATZEN DU / SOLICITA LE SEA EXPEDIDO:

Gaitasun-Unitate(ar)en egiaztagiria / *Acreditación de la/s Unidad/es de Competencia:*

- Profesionaltasun-Ziurtagiria / *Certificado de Profesionalidad:*

.....

- Errege Dekretua / *Real Decreto:*

.....

- Gaitasun-Unitateak / *Unidades de Competencia:*

.....

.....

.....

.....

Eta horretarako honako egiaztagiri hauek aurkezten dira, egiaztapena eskatzen den **Gaitasun Unitateei** dagozkien prestakuntza-unitateetan bilakaera positiboa izan dela erakusten dutenak:

Para lo que se aporta la siguiente documentación acreditativa en la que se refleja la evaluación positiva en los módulos formativos correspondientes a las **Unidades de Competencia** de las que se solicita la acreditación y expedido por:

Gaitasun Unitatearen Kodea / *Código Unidad de Competencia:*Honako honek emandakoa/*Expedido por:*

.....

.....

.....

.....

.....(e)n, 20 ..... (e)ko .....(a)ren ..... (e/a)n

En ..... , a ..... de ..... de 20.....

Sinadura / *Firmado:*

Nire ardurapean adierazten dut eskaera honetan ageri diren datuak benetakoak direla, eta Administrazioaren esku daudela horiek egiaztatu ahal izateko.

Organo izapidegileari baimena ematen dion, eskaera honetan biltzen diren datuak egiaztatze behar duen informazioa Administrazio Publikoaren Komunikazio Sarearen bidez begiratu, kontsultatu edota eska dezan, ekainaren 22ko 11/2007 Legean, herritarrek Zerbitzu Publikoetan duten sarbide elektronikoa arautzen duen legean, aurreikusitakoaren arabera.

DATUAK BABESTE. Eskaera honek datu pertsonalak ditu, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren jabetzakoa den fitxategi batean jasotzen dira, eta baimena ematen diozu jabe edo titular honi modu automatizatuaren erabiltzeko, eskariaren arazotik eratorritako funtzioak soilik kudeatzeko helburuarekin, eta beharrezkoa balitz beste Administrazio Publiko batzuei lagatzeko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Lege horretan ezarrita dauden datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, eta horretarako honako helbide honetara idatzi bat bidali beharko duzu: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua José Abotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz.

Declaro bajo mi responsabilidad que son ciertos los datos que figuran en la presente solicitud, estando a disposición de la Administración para cualquier actuación de comprobación de los mismos.

Autorizo al órgano instructor a verificar, consultar y/o solicitar la información necesaria para la comprobación de datos que figuran en la presente solicitud a través de la Red de Comunicaciones de las Administraciones Públicas, en los términos previstos en la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos.

PROTECCIÓN DE DATOS. La presente solicitud contiene datos de carácter personal que forman parte de un fichero titularidad de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, y autoriza a dicho titular a tratarlos automatizadamente con la única finalidad de gestionar funciones derivadas del motivo de la solicitud y, en su caso cederlos a otras Administraciones Públicas en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre. Podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición previstos en la ley, dirigiendo un escrito a Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, c/ José Abotegi 1, 01009 Vitoria-Gasteiz.



2013ko abenduaren 20a, ostirala



## III. ERANSKINA, ABENDUAREN 17KO 463/2013 DEKRETUARENA

**PRAKTIKA PROFESIONAL EZ LABORALEN SALBUESPENAREN ESKAERA**  
**SOLICITUD DE EXENCIÓN DE PRÁCTICAS PROFESIONALES NO LABORALES**

LEHEN ABIZENA / PRIMER APELLIDO:	BIGARREN ABIZENA / SEGUNDO APELLIDO:	IZENA/NOMBRE:	NAN - AIZ / DNI - NIE	
JAIOTEGUNA / FECHA NACIMIENTO:	SEXUA/SEXO:	NAZIONALITATEA/ NACIONALIDAD:	GZ zk. / N.º SS	TELFONOA/TELÉFONO
HELBIDEA/DOMICILIO	PK/CP:	HERRIA/LOCALIDAD:	PROBINTZIA/PROVINCIA:	ESKUALDEA/COMARCA

Exentzioa eskatzen dio Lanbideri

Solicita a Lanbide, la exención de las prácticas profesionales no laborales del certificado de profesionalidad

-----  
 profesionaltasun-ziurtagiriaren lan-kontratu gabeko lanbide-  
 praktikaldian.

-----  
 Código:

Kodea:

Documentos acreditativos que se adjuntan para la solicitud de  
 exención:

Exentzio-eskaerarako erantsi beharreko ziurtagiriak:

<input type="checkbox"/>	Hiru hilabete edo gehiagoko lan-esperientzia. / Experiencia laboral igual o superior a tres meses.
<input type="checkbox"/>	Derrigorrezko zergen erroldan hiru hilez edo denbora luzeagoz alta hartuta egotearen ziurtagiria.(Beren kontura aritzen diren langileak). / Certificación de alta en el censo de obligados tributarios con antigüedad de tres meses o más (Trabajadores o trabajadoras por cuenta propia).
<input type="checkbox"/>	Bekaduna / Becario-a
<input type="checkbox"/>	Boluntarioa / Voluntariado
<input type="checkbox"/>	Profesionaltasun ziurtagiriarekin lotuta dauden lan-kontraturik gabeko bestelako praktikaldiak. / Prácticas realizadas en programas de formación relacionadas con el certificado de profesionalidad respecto al que se solicita la acreditación.
<input type="checkbox"/>	Praktiketako kontratua. / Contrato en prácticas.

.....(e)n, 20 ..... (e)ko ..... aren ... (e/a)n

En ..... , a ..... de ..... de 20.....

Sinadura / Firmado:

Nire ardurapean adierazten dut eskaera honetan ageri diren datuak benetakoak direla, eta Administrazioaren esku daudela horiek egiaztatzen ahal izateko.

Organo izapidegileari baimena ematen dion, eskaera honetan biltzen diren datuak egiaztatze behar duen informazioa Administrazio Publikoaren Komunikazio Sarearen bidez begiratu, kontsultatu edota eska dezan, ekainaren 22ko 11/2007 Legean, herritarrek Zerbitzu Publikoetan duten sarbide elektronikoa arautzen duen legean, aurreikusitakoaren arabera.

DATUAK BABESTEIA. Eskaera honek datu pertsonalak ditu, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren jabetzakoa den fitategi batean jasotzen dira, eta baimena ematen diozu jabe edo titular honi modu automatizatuan erabiltzeko, eskariaren arazoetarako funtzioak soilik kudeatzeko helburuarekin, eta beharrezkoa balitz beste Administrazio Publiko batzuei lagatzeko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Lege horretan ezarritako datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, eta horretarako honako helbide honetara idatzi bat bidali beharko duzu: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua José Axtotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz.

Declaro bajo mi responsabilidad que son ciertos los datos que figuran en la presente solicitud, estando a disposición de la Administración para cualquier actuación de comprobación de los mismos.

Autorizo al órgano instructor a verificar, consultar y/o solicitar la información necesaria para la comprobación de datos que figuran en la presente solicitud a través de la Red de Comunicaciones de las Administraciones Públicas, en los términos previstos en la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos.

PROTECCIÓN DE DATOS. La presente solicitud contiene datos de carácter personal que forman parte de un fichero titularidad de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, y autoriza a dicho titular a tratarlos automatizadamente con la única finalidad de gestionar funciones derivadas del motivo de la solicitud y, en su caso cederlos a otras Administraciones Públicas en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre. Podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición previstos en la ley, dirigiendo un escrito a Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, c/ José Axtotegi 1, 01009 Vitoria-Gasteiz.



**PRAKTIKA PROFESIONAL EZ LABORALEN SALBUESPENA: ERANTSI BEHARREKO ZIURTAGIRIAK**

(Lanbide profilarerkin lotutakoa)

**EXENCIÓN DEL MÓDULO DE PRÁCTICAS NO LABORALES: DOCUMENTACIÓN A ENTREGAR***Relacionada con el perfil profesional del Certificado de Profesionalidad )*

<p><b>a) Soldatapeko langileentzat (Praktiketako kontratuak barne)</b></p> <p>Para personas trabajadoras asalariadas (Incluidos contratos en prácticas)</p>	<p>Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren, Itsasoko Gizarte Institutuaren edo afiliatuta dauden mutualitatearen ziurtagiria, hauek jasotzen dituen: enpresa, lan-kategoria (kotizazio-taldea) eta kontratazio-aldia, eta lan-esperientzia eskuratu duten enpresaren lan-kontratua edo ziurtagiria, berariaz jasotzen duena kontratuaren prestazio-aldien iraupena, garatutako jarduera eta jarduera hori zer denbora-tartetan gauzatu den. Gutxienez 3 hileko antzintasunez.</p> <p><i>Certificación de la Tesorería General de la Seguridad Social, del Instituto Social de la Marina o de la mutualidad a la que estuvieran afiliados, donde conste la empresa, la categoría laboral (grupo de cotización) y el período de contratación, y contrato de trabajo o certificación de la empresa donde hayan adquirido la experiencia laboral, en la que conste específicamente la duración de los periodos de prestación del contrato, la actividad desarrollada y el intervalo de tiempo en el que se ha realizado dicha actividad. Con una antigüedad mínima de 3 meses.</i></p>
<p><b>b) Langile autonomo edo norberaren konturakoentzat.</b></p> <p>Para personas trabajadoras autónomas o por cuenta propia.</p>	<p>Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren edo Itsasoko Gizarte Institutuaren ziurtagiria, hauek jasotzen dituen: Gizarte Segurantzako alta-aldiak dagokion erregimen berezian gutxienez 3 hileko antzintasunez eta garatutako jarduera eta zer den denbora-tartetan gauzatu den.</p> <p><i>Certificación de la Tesorería General de la Seguridad Social o del Instituto Social de la Marina de los períodos de alta en la Seguridad Social en el régimen especial y/o alta de actividad económica correspondiente con una antigüedad mínima de 3 meses y descripción de la actividad desarrollada e intervalo de tiempo en el que se ha realizado la misma mediante certificado de declaración responsable.</i></p>
<p><b>c) Langile boluntario edo bekadunentzat.</b></p> <p>Para personas trabajadoras voluntarias o becarias.</p>	<p>Laguntza eskaini den erakundearen ziurtagiria, berariaz hauek jasotzen dituen: zer jarduera eta funtzio gauzatu diren, zer urtetan, eta horietara zenbat ordu eskaini diren guztira Gutxienez hiru hilabetekoa.</p> <p><i>Certificación de la organización donde se haya prestado la asistencia en la que consten, específicamente, las actividades y funciones realizadas, el año en el que se han realizado y el número total de horas dedicadas a las mismas. Como mínimo de tres meses.</i></p>
<p><b>d) Lan-kontraturik gabeko bestelako praktikaldiak.</b></p> <p>Otras prácticas no laborales.</p>	<p>Egindako lan-kontraturik gabeko praktikaldien ziurtagiria (Praktikak, lanbide profilarerkin lotutak egon behar dira eta praktiken iraupena profesionaltasun ziurtagiriari praktikak modulan orduak dituen edo gehiago izan behar da).</p> <p><i>Certificación de las prácticas laborales realizadas mediante otras acciones formativas del mismo perfil profesional y con una duración igual o superior al módulo de prácticas correspondientes al certificado de profesionalidad que se quiere acreditar.</i></p>

Exentzio-eskaera profesionaltasun-ziurtagiri oso bat egiaztatu nahi den unean egingo da eta pertsonak berak egingo du. Profesionaltasun-ziurtagiri osoen prestakuntza-programazioen kasuan edo ikastetxeak lan-kontratu gabeko praktikaldiak kudeatu behar dituztenean, ikastetxeak exentzioa eska dezake, egoki deritzon dagokion dokumentazioa aurkeztuta, horietan eskolak emateko.

*La solicitud de exención se realizará en el momento de querer acreditar un certificado de profesionalidad completo y lo realizará la propia persona. En el caso de programaciones formativas de certificados de profesionalidad completos o en los que el centro ha de gestionar prácticas no laborales, el propio centro gestionará la solicitud de la exención aportando la documentación correspondiente en el momento que considere oportuno con el fin de facilitar las mismas.*